

Atxikitzeke eta konpromisoa hartzeko dokumentua

..... jaunak/andreak, NAN zenbakidunak, ikastetxe eskolapioko zuzendari/titular gisa, Itaka-Eskolapioak fundazioak sustatutako **eraldaketa sozialerako hezkuntza-komunitateen sarean** parte hartu nahi du.

Dokumentu hau sinatzean ikastetxeak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Sortzaileak eta parte-hartzaileak diren eta pentsamendu kritikoa duten **personak lortzeko heztea**.
2. Guztien onerako, ahulenak defendatzeko eta konpromiso sozialerako **bokazioak eta gaitasunen eta talentuen orientazioa sustatzea**.
3. Aktiboak, partaidetzakoak eta lankidetzakoak diren **ikuspegi metodologikoak lehenestea**, batez ere ikaskuntza eta zerbitzuari dagozkionak.
4. Justiziaren, duintasunaren, berdintasunaren, desberdintasunaren errespetuaren, kontzientzia ekologikoaren eta herritartasun globalaren balioak sustatzen dituzten **eduki pedagogikoak izatea**.
5. **Ikastetxea indartzea** mundu bidezkoago eta solidarioago bat eraikitzeke konpromisoa duen **eraldaketa sozialeko plataforma gisa**.
6. **Sarean eta lankidetzan lan egitea** ikastetxeke beste errealitate batzuekin, bereziki Itaka-Eskolapioakekin, bai eta izaera sozialeko beste ikastetxe eta elkarte batzuekin ere.
7. Eraldaketa sozialerako hezkuntzaren arloan ditugun **esperientziak, praktikak eta ikaskuntzak partekatzea**.
8. **Atxikitzeke dokumentu honetan deskribatutako konpromisoetan pixkanaka aurrera egitea**.

Zuzendaria/Titularra

..... ikastetxea

Konpromisoaren puntuak zehaztea

1. Sortzaileak eta parte-hartzaileak diren eta pentsamendu kritikoa duten **pertsonak lortzeko hezte**a.
 - ✓ Alderdi hauek ikasleen profilean islatuta izatea.
 - ✓ Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan sormena eta gaitasun kritikoa sustatzen direla frogatzen duten ebidentziak izatea etapa guztietan (helburuak, unitate didaktikoak, ebaluazioa, jarduerak ...).
 - ✓ Ikasleek parte hartzeko uneak, jarduerak edo espazioak planifikatuta daude, ikastetxea eta haren elementuak hobetzeko (tutoretzetan, irakasleekiko harremanetan, ordezkarien bidez, ebaluazio-bilkuretan, zuzendaritzarekin edo bestelako taldeekin egindako bileren bidez, iradokizunak eta ekarpenak egiteko sistemen bidez...).
2. Guztien onerako, ahulenak defendatzeko eta konpromiso sozialerako **bokazioak eta gaitasunen eta talentuen orientazioa sustatzea**.
 - ✓ Horretarako berariazko tutoretzak antolatzea.
 - ✓ Bertute hauengatik gizartean ezagunak diren pertsonen, taldeen eta elkarten erreferentziak eskaintzea etapa guztietan.
 - ✓ Ikastetxeko ikasle nagusien artean gizarte-boluntariotzako esperientziak sustatzea.
 - ✓ Alderdi hauek esplizituki bultzatzen dituzten aisialdirako hezkuntza-prozesuak edukitzea (Calasanz Mugimendua).
3. Aktiboak, partaidetzakoak eta lankidetzakoak diren **ikuspegi metodologikoak lehenestea**, batez ere ikaskuntza eta zerbitzuari dagozkionak.
 - ✓ Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuko dokumentu eta praktiketan ikuspegi hau lehenesten dela frogatzen duten ebidentziak edukitzea.
 - ✓ Ikaskuntza eta zerbitzuaren metodologian oinarritutako unitate didaktikoak izatea.
4. Justiziaren, duintasunaren, berdintasunaren, desberdintasunaren errespetuaren, kontzientzia ekologikoaren eta herritartasun globalaren balioak sustatzen dituzten **eduki pedagogikoak izatea**.
 - ✓ Balio hauekin lotutako ebaluazio-adierazleak eta -tresnak edukitzea (balioen inkesta, bestelako tresna kualitatibo edo kuantitatiboak...).
 - ✓ Genero ikuspegia duten material eta baliabide pedagogikoak erabiltzea.
 - ✓ Ikastetxean gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna garatuta eta ezarrita edukitzea.
5. **Ikastetxea indartzea** mundu bidezkoago eta solidarioago bat eraikitzeko konpromisoa duen **eraldaketa sozialeko plataforma gisa**.
 - ✓ Ikastetxeko ikasgeletan eta espazioetan hezkuntza formalaz bestelako hezkuntza- eta gizarte-jarduerak antolatzea aldian-aldian eraldaketa sozialeko ikuspegiarekin (pertsonak alfabetatzea, laguntza-eskolak, zaugarritasuna duten pertsonak artatzea...).

- ✓ Ikastetxeko instalazioetan auzo edo hiri osoari irekitako jarduera sozial-solidarioak antolatzea (azoka txikiak, bazkari solidarioak, hitzaldiak, topaketak, kulturarteko egunak, elkarten erakusketak, entitate sozialei laguntzea...).
 - ✓ Hezkuntza-komunitateko kide guztientzat (ikasleak, langileak, familiak, laguntzaileak...) helburu sozialak dituzten jardueretan edo taldeetan parte hartzeko deialdiak edukitzea.
 - ✓ Ikastetxetik kanpo eragin soziala duten gizarte-jarduerak egitea (ikastetxearen inguruan, hiriko kaleetan...).
6. **Sarean eta lankidetzan lan egitea** ikastetxeko beste errealitate batzuekin, bereziki Itaka-Eskolapioaekin, bai eta izaera sozialeko beste ikastetxe eta elkarte batzuekin ere.
- ✓ Itaka-Eskolapioaekin planifikatutako kanpainak, asteak eta jarduerak burutzea.
 - ✓ Itaka-Eskolapioak fundazioak eskainitako prestakuntza-jarduerak egitea.
 - ✓ Ikastetxeko beste entitate batzuk jarduera solidarioetan nahastea (kirolak, gurasoen elkarteak, eskolaz kanpoko ekintzak...).
 - ✓ Harremanak, hitzarmenak edo konpromisoak izatea beste ikastetxe eskolapio batzuekin, beste ikastetxe batzuekin eta elkarteekin, ekintza sozialak eta solidarioak bultzatzeko.
7. Eraldaketa sozialerako hezkuntzaren arloan ditugun **esperientziak, praktikak eta ikaskuntzak partekatzea**.
- ✓ Educa.red plataforman eraldaketa sozialeko esperientziak partekatzea.
 - ✓ Ikastetxearen sare sozialetan jarduera sozialak eta solidarioak argitaratzea.
 - ✓ Ikastetxeko pertsonak eta taldeek parte hartzen duten bilera eta topaketetan gai honen inguruko jardunbide egokiak ezagutaraztea, horretarako aukera dagoenean.
8. Atxikitzeko dokumentu honetan deskribatutako konpromisoetan **pixkanaka aurrera egitea**.
- ✓ Plan estrategikoetan atxikitze-dokumentu honekin lotutako helburu, jarduera eta adierazleren bat txertatzea.
 - ✓ Hasieran eta gero bi urtean behin autoebaluazio bat egitea Itaka-Eskolapioak fundazioak horretarako eskaintzen duen tresna erabilia.
 - ✓ Urteko planetan autoebaluaziotik ateratzen diren hobekuntza-ekintzak sartzea.

Ondorioak eta hobetzeko ekintzak: